## ASTEBURUARI BEGIRA

- **Txotxongiloa.** Gaur 17.00etan Lezoko Gezalan *Titirikontu-kontari* txotxongilo emanaldia egongo da Gorakada taldearen eskutik.
- **Betizuak.** Gaur 17.30etik aurrera Pasai Donibaneko pilotalekuan, Betizuek jaialdia prestatu dute haurrentzat. Kantez eta ipuinez gain, jolasak, eskulanak eta bestelako jarduerak izango dituzte. Sarrera doan izango da.
- **Cortometrajes.** Hoy y mañana el centro cultural de Errenteria acogerá la proyección de los cortos del certamen internacional a partir de las 19.00 horas. La entrega de premios se efectuará el domingo a la misma hora.
- **Dantza.** Larunbatean, Oiartzungo Elorsoro kiroldegian 20.00etan, iparraldeko Burrunka taldeak musika eta dantza uztartzen dituen ekitaldi ikusgarria eskainiko du. Gainera, gaur gauean Girizia elkartean afaria eta zuberotar kantariak izango dira 21.30etik aurrera. Txartelak salgai daude ohiko lekuetan.
- **Fotografía.** Jaizkibel Mendizale Taldea de Antxo organiza el domingo su primer rally fotográfico de naturaleza, que comenzará a las 8.00 horas en su local de la calle Oarso, 4, con un desayuno.
- **Feria de Abril.** El centro cultural andaluz Aljarafe de Errenteria ha preparado para el sábado y el domingo la I Feria de Abril en la plaza Xabier Olaskoaga.

# Errenteria celebrará asambleas populares para redactar un plan de igualdad de género

LAS REUNIONES CON AGENTES SOCIALES COMENZARÁN LA **PRÓXIMA SEMANA** Y SE DESARROLLARÁN HASTA MAYO



Un hombre, con bolsas de la compra, por la avenida de Navarra. FOTO: A.M.

ERRENTERIA. El Ayuntamiento de Errenteria ha diseñado un Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres para el período 2008-2011 que tendrá como objetivo la puesta en marcha de actividades y medidas dirigidas a erradicar las desigualdades de género.

La concejala delegada de Servicios Sociales, Maite Peña, presentó recientemente el primer borrador sobre esta materia que ha elaborado el Consistorio y que la próxima semana se comenzará a perfilar con la celebración de la primera reunión de los grupos de trabajo, encargados de abordar la igualdad en ámbitos como el urbanismo, el transporte público y el medio ambiente. Estas asambleas se sucederán hasta mayo.

Estos grupos de trabajo están compuestos por representantes de los agentes sociales y asociaciones del municipio, además de particulares.

La reunión sobre urbanismo, transporte público y medio ambiente se celebrará el 21 de abril, de 18.30 a 20.30 horas en la oficina de Servicios Sociales (calle Santa Clara). El resto de debates serán en la Casa Xenpelar. De este modo, los temas de cultura y deporte se tratarán un día más tarde, en el mismo horario que el anterior. La educación se tocará el día 24, de 9.00 a 11.00 horas. Inserción social, el 29 de abril por la tarde. Empleo y trabajo, un día más tarde por la mañana. Los temas de salud no se estudiarán hasta el 7 de mayo de 10.00 a 12.00, y por último, la reunión sobre igualdad se celebrará el 13 de mayo de 18.30 a 20.30.

A partir de junio, y una vez conocidas las conclusiones de las reuniones celebradas, los Servicios Sociales municipales diseñarán y pondrán en marcha el definitivo plan para la igualdad. Más información, en el número 943 449604 (Amaia Arotzena). >EFE/A.M.

### ERRENTERIA > La plaza Xabier Olaskoaga ofrecerá mañana productos de comercio justo

La ONGD Corazonistas de Telleri-Alde volverá a instalar mañana un puesto de comercio justo a la entrada de la plaza Xabier Olaskoaga por la calle Viteri. El horario será de 10.00 a 13.30 horas. Los profesores y alumnos que colaboran en esta actividad no lucrativa tienen como objetivo dar a conocer productos de países en vías de desarrollo y así ayudar a las comunidades que los elaboran. Por otro lado, durante esta semana se ha celebrado en dicho colegio, un año más, la Semana Solidaria, donde se han trabajado con el alumnado diferentes aspectos de temática social. >A.M.

### OIARTZUN > Kuadrillategik eta Foroak Bertizera irteera antolatu dute gazteentzat

Gazte Foroak eta Kuadrillategi ekimenak Oiartzungo gaztetxoentzat Bertizera (Nafarroa) irtenaldia antolatu dute apirilaren 26 eta 27rako. Bertan, rafting eta bestelako jarduerak egingo dituzte. Irteera larunbatean egingo dute 13.00etan ikastolako parkinetik eta igandean 18.00ak aldera itzuliko dira. Prezioa 40 euro dira eta dirua Euskadiko Kutxaren 3035012662126104740l kontuan sartu behar da. Ordainagiria bihar baino lehen eraman behar da Gazte Informazio Bulegora. >A.M.

# Pasai Antxok Molinao erreka garbituko du

BIZILAGUNEK **MAREALTA EGUNA** APIRILAREN 26AN OSPATUKO DUTE 13.00ETATIK AURRERA

Jai-giroa nagusi izango da eta sardina jana, batelen estropadak eta musika eta dantza egongo dira



Burnizko tresnak eta zakarrak Molinao errekan. ARGAZKIA: UTZITAKOA

AITZIBER MUGA

PASAIA. Ekimen berri bat sortu du Pasai Antxoko bizilagun talde batek: Marealta Eguna. Honen ondorioz, apirilaren 26an barruti horretako Marealta edo Molinao erreka garbituko dute 13.00etatik aurrera, itsasaldien arabera.

Honekin batera, ekintza honen sustatzaileek erreka Antxoko zati garrantzitsua dela ohartarazi nahi dute eta bide batez Marealta ez zikintzeko ideia zabalduko dute herritarren artean. Zikintzen dutenak bere buruaren kontra doazela jakitera ematea eta pertsona hauek salatzea ekimenaren beste helburu batzuk dira.

Aurreikusi dutenez, Marealta Eguna datorren asteko larunbatean itsasbeherarekin hasiko da. "Hiruzpalau pertsona errekara jaitsiko dira. Hauek, bertako zakarretan sokak jarriko dituzte, eta errekaren ertzean daudenek, sokei tiraka, zaborra lehorreratzen lagunduko dute", azaldu dute. Garbiketa lanak N-Ietik hurbilen dagoen zatitik hasiko dira, pixkanaka Molinao aldera joateko.

Pasaiako Udalak, iniziatiba honetako laguntzaileetako batek, San Markoseko Mankomunitatearen bitartez, edukiontziak jarriko ditu, ondoren jasotako trasteak birziklatzera eraman daitezen. Udalak ere eskularruak eta bestelako tresna eta azpiegiturak utziko ditu.

Hala eta guztiz ere, Marealta Egunean jai giroa izango da nagusi. Sardina jana egingo da Marealtaren inguruan sagardoarekin. Bestalde, koadrilen arteko batelen estropada bat antolatu dute ere. Azkenik, musika eta dantza ez direla faltako ziurtatu dute ekimenaren suspertzaileek.

Bizilagunek ekinbide honi buruz adierazi dutenez, "hamarkada luzetan zehar, zeharo zikin joan dira itsasora Molinao errekako urak, honen inguruan kontrolik gabeko jarduera industriala aurrera eramaten zelako". "Baina badira hamar urte inguru Marealtan ez dagoela industriarik; baina zenbaitek errekara hainbat hesi, gurpil, elektrotresna eta bestelako zakarrak botatzen jarraitzen dute, kontrolik gabe", kexu dira auzolanaren antolatzaileak.

**Azken hamarkadan, industria kutsakorren desagerpenarekin, inguruko birgaitzea hobetu dela diote**

Izan ere, Marealta pixkanaka bere kabuz birgaitzen ari dela baieztatu dute antxotarrek: "Goroldioa nonahi hazi da eta, ohikoak diren korrokoiez gain, hainbat arrain espezie eta molusku bizitzen hasi da Marealtan". "Azken hamar urteetan jarduera industrial kutsakorrik errekaren inguruan ez izateak ahalbidetu du hori. Eta zabor guzti hori kenduta, zinez areagotuko da Marealtaren birgaitzea", argudiatu dute. Amaitzeko, bizilagun guztien laguntza eskatu dute.

CAFETERIA ZALDIAK
ZALDIAK
RESTAURANTE
Avda. Jaizkibel,1 LEZO
Tel. 943 34 42 62 - 943 52 99 61
MENU ESPECIAL FIN DE SEMANA
Primeros
- Ensalada de pollo con salsa de yogurt
- Crepes de salmón y gambas
- Espárragos rebozados con salsa de queso
- Tallarines con txanpis y nata
Segundos
- Entrecot de aguja
- Costilla ternera plancha
- Filete de cerdo relleno de manzana
- Trucha al horno con setas
Precio: Viernes 11€
Sábado 13€
Postres caseros y bebida
Menú del día 9,00€ - Platos Combinados